



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuaren Fundazioa

UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuaren Fundazioan oposizio-lehiaketa bidez Administrari Laguntzaile plaza bat betetzeko hautaprobetarako deialdia onestea.

UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuaren Fundazioaren Zuzendaritza Batzordeak, 2026ko ekainaren 15ean egindako ezohiko bileran, besteak beste, erabaki hau onartu zuen:

Lehena: UNED Bizkaia Ikastetxe Elkarturako administrari laguntzaile plaza bat betetzeko hautaketa-prozesurako deialdia eta oinarriak onartzea; plaza hori Eraldaketa Digitaleko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak baimendu zuen 2025eko abenduaren 2an, 2025eko langileen berritze-tasaren kargura.

Bigarrena: Deialdi hau eta deialdiaren oinarriak «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean», UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuko web-orrian eta iragarki-oholean argitaratzea.

Hirugarrena: Zuzendaritza Batzordeko Presidentea gaitzea, deialdi hau izapidetu eta bideratzeko beharrezkoak diren ebazpen guztiak eman ditzan.

Portugaleten, 2026ko ekainaren 23an.—Zuzendaritza Batzordeko Presidentea, María José Blanco Gavieiro



Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2025eko abenduaren 2ko Ebazpenaren bidez, baimena eman da UNEDen Ikastetxe Elkartuetako teknikarien, kudeaketakoen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen (aurrerantzean TEKAZEL) 2025eko berritze-tasarako, 31/2022 Legeak, abenduaren 23koak, Estatuko 2023. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 20 bi 3 l artikuluan aurreikusitakoaren arabera; lan-kontratudun langile berrientzako plazetarako deialdirako baimena jasotzen da artikuluko horretan.

UNEDen Bizkaiko Ikastetxe Elkartuaren Fundazioko Zuzendaritza Batzordeak -UNE-Deko Ikastetxe Elkartuen Antolaketa eta Funtzionamendurako Esparru Erregelamenduari (Gobernu Kontseiluak 2011ko urriaren 26an onartua, 2011ko azaroaren 7ko BICI) 59. artikulua emandako eskumenak baliatuta, bai eta unibertsitate honetako Estatuetan (181/2026 Errege Dekretuak, martxoaren 11koak, (martxoaren 12ko BOE) onartuak) jasotakoak ere- lan-arloko TEKAZEL plantillan hutsik dagoen plaza bat betetzeko sarbide libreko hautaprobetarako deialdia egitea erabaki du, honako oinarri hauei lotuta:

DEIALDIAREN OINARRIAK

1. Arau orokorrak

1.1. Hautaketa-probetarako deialdia egiten da, oposizio-lehiaketa aske bidez, UNEDen Bizkaiko Ikastetxe Elkartuaren Fundazioan lan-arloko teknikarien, kudeaketakoen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen (TEKAZEL) plaza bat betetzeko, administrazio laguntzaileen kategorian.

1.2. Plaza hori UNEDen Bizkaiko Ikastetxe Elkartuan (aurrerantzean, UNED Bizkaia) beteko da.

1.3. Honako dekretu hauek aplikatuko zaizkie hautaprobe hauei: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzako Estatutuaren Legearen testuategia onartzen duena; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoa Berritzeko Neurriei buruzkoa, aurreko arauaren kontra ez doan guztian; 2271/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikoan sartzea eta lanpostuak betetzea arautzen duena; Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren Ebazpena, Estatuko sektore publikoko erakundeen hautaketa-prozesuetan jarduteko irizpide komunak onartzen dituena, 2022ko apirilaren 11koa; 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionarioen sarbidea, lanpostuen hornikuntza eta karrera profesionala arautzen dituen Erregelamendu Orokorra onartzen duena; 181/2026 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren Estatutuak onartzen dituena; Bizkaiko UNEDen Ikastetxe Elkartuaren Fundazioaren Estatutuak, 2023ko urriaren 25ekoak; Bizkaiko UNEDen Ikastetxe Elkartuaren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, 2012ko martxoaren 26koa; Bizkaiko UNEDen Ikastetxe Elkartuaren Fundazioaren administrazio eta zerbitzuetako langileen lan-harremanak arautzen dituen II. Akordioa, 2019ko martxoaren 14koa; aplikagarri diren gainerako xedapenak, eta honako oinarri hauei lotutakoak.

1.4. Hautaketa-prozesuan, dokumentazioa UNEDen egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko da (<https://uned.sede.gob.es>).

1.5. Hautaketa-prozesuan, haren garapenean sortzen diren askotariko alderdiei buruzko informazio guztia UNED Bizkaia webgunean argitaratuko da, <https://www.uned.es/universidad/centros/bizkaia.html> orrian (menua, ikastetxea, TEKAZEL, hautaketa-prozesuak), bai eta iragarki-taulan ere.

1.6. Oposizio-fase bat eta lehiaketa-fase bat izango ditu hautaketa-prozesuak. Hautaketa-prozesuaren garapena honako deialdi honetako seigarren oinarrian zehaztu da.

1.7. Oposizio-fasea arautuko duen programa deialdi honetako I. eranskinean dator.

2. Hautagaien betebeharrak

Hautaprobetan onartuak izateko, baldintza hauek bete behar dituzte izangaiek, bai eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eta bai hautaketa-prozesu osoan:

2.1. Nazionalitatea.

2.2. Espainiako nazionalitatea izatea.



- 2.3. Era berean, espainiarren baldintza berberetan parte hartu ahal izango dute ondoren adierazten direnek, salbuespentzat hartuta zuzenean edo zeharka botere publikoa gauzatzean edo Estatuaren eta herri-administrazioen interes orokorren zaintzan parte hartzea eskatzen duten enplegu publikoak:

- a) Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea dutenak.
- b) Espainiako herritarren ezkontideek eta Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten herritarren ezkontideek, haien nazionalitatea edozein izanik ere, eta zuzenbidez bananduta ez badaude. Era berean, 21 urtetik beherako ondorengoek edota adin hori gainditu arren mendekotasuna dutenak ere parte hartu ahal izango dute, baldintza beretan.
- c) Europar Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonak, langileen zirkulazio askea aplikatzen bada horietan.
- d) Aurreko paragrafoan jasota ez daudenak eta Espainian lege daudenak, baldin eta Espainian bizitzeko eta lan-merkatuan mugarik gabe sartzeko gaitasuna dutela erakusten duten dokumentuen titularrak badira, bizileku iraunkorra dutenak, bizitzeko eta lanerako baimena dutenak eta errefuxiatuek.

Espainian bizi ez diren eta b) atalean sartzen diren izangaiek nahiz c) eta d) atalean sartzen diren atzerriarrek, beren eskabidearekin batera, adierazitako baldintzak egiaztatze balio duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

- 2.4. Adina: hamasei (16) urte beteta izatea, eta ez gainditzea, ezta ere, nahitaezko erretirorako gehieneko adina.
- 2.5. Gaitasuna: dagozkion eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- 2.6. Gaitzea: administrazio publikoetatik baztertua ez izana, diziplinazko espediente edo kaleratze baten bidez, eta bere eginkizunak betetzeko ezgaiturik ez egoitea ebazpen judizial baten bidez.

Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, desgaituta edo egoera balio-kide batean ez dagoela egiaztatu beharko du, eta dagokion estatuan enplegu publikorako sarbidea baldintza beretan izatea eragozten duen diziplina-zeharpenik edo baliokiderik jaso ez duela ere ziurtatu beharko du.

- 2.7. Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izan behar dute parte-hartzaileek, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen deneko horiek lortzeko modua izan behar dute, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginean, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoan, jasotzen denaren arabera. Horrez gain, EDU/1603/2009 Aginduak, ekainaren 10ekoak (17ko BOE), xedatutakoa beteiko da; agindu horretan, maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzako Lege Organikoak (martxoaren 7ko EDU/520/2011 Aginduak aldatu zuen) araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko graduatu-tituluekiko baliokidetasunak ezartzen dira.

Ez zaie aplikatuko betekizun hori Europar Batasuneko zuzenbideko xedapenen babesean lanbide-kualifikazioaren aitortpena lortu duten izangaiei, araututako lanbideen esparruan.

Titulazioak atzerrian eskuratu dituzten izangaiek tituluari dagokion baliozkotzea dutela frogatu beharko dute, edo, hala badagokio, homologazioa ziurtatzen duen egiaztagiria dutela.

3. Eskabideak

- 3.1. Hautapropa hauetan parte hartzeko eskabidea, oinarri hauekin batera II. eranskinean ageri dena, UNED Bizkaia ikastetxearen webgunean eskuratu daiteke. Eskabidea bete ondoren, UNEDen egoitza elektronikoan aurkeztuko da (<https://uned.sede.gob.es>).



3.2. Izangaiek, beren erantzukizunpean, adierazten dute egiazkoak direla eskabidean jasotako datuak, eta betetzen dituztela deialdi honetako bigarren oinarrian eskatzen diren baldintzak. Betebehar horiek ez dira eskabidearekin batera aurkeztu behar; hautapropa gaudituz gero edo eskaera egiten den beste edozein unetan egiaztatu beharko dira.

3.3. Eskabideak hoge (20) egun balioduneko epean aurkeztuko dira, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.4. Azterketa-eskabideak 15 euro izango dira, eta banku-transferentzia bidez egingo da ordainketa: UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuaren Fundazioaren izenean egingo da, ES39 2095 4408 5520 6502 9407 kontuan, eta izangaiaren datuak adieraziko dira (izena, abizenak eta NANA); kontzeptuan «Administrari laguntzaile izateko hautapropa onarpena» jarrita.

3.5. Eskabideak aurkezteko epearen barnean egingo da azterketa-eskabidearen ordainketa, edo, erabat edo zati batean ordainketa salbuesteko arrazoiren bat badago, justifikazioa ere epe horretan aurkeztu beharko da. Bestela, kanpoan utziko da izangaia.

3.6. Onespene-eskabidea aurkeztu ondoren azterketa-eskabideak ordaindu ez badira edota ez ordaintzeko salbuespenezko baldintzak betetzen ez badira, izangaia kanpoan geldituko da behin betiko.

3.7. Azterketa-eskabideen tasa ordaintzeak edota erabat edo zati batean ordaintzea salbuesteko arrazoiren bat dagoela justifikatzeak ez du ordeztuko, inola ere, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea dagokion epean eta moduan eskatzeko izapidea.

Azterketa-eskabideak ordaintzetik salbuetsita daude honako hauek:

- a) %30eko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak; egoera horren egiaztatzea aurkeztu beharko da eskaerarekin batera.
- b) Deialdi hau argitaratzen den egunaren aurretik gutxienez bi hilabetez etenik gabe enplegu-eskatzaille gisa jardun duten pertsonak, baldin eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino errenta handiagorik ez badute hileko zenbatekotan, enplegu-eskaintza egoki bati uko egin ez badiote, eta sustapen-ekintzetan, prestakuntzakoetan edo birmoldaketa profesionalekoetan parte hartzeari uko egin ez badiote.

Enplegu-eskatzaille izaera, Legean aurreikusitako baldintzak beteta, eta enplegu-eskaintza egokirik baztertu ez izana nahiz sustapen-ekintzetan, prestakuntzakoetan eta birmoldaketa profesionalerako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana txosten baten bidez egiaztatuko da: «Uko Egiteen Txosten Negatiboa»; dagokion Enplegu Zerbitzu Publikoaren bulegoetan eskatuko da.

Errentak egiaztatzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortzearen ziurtagiria, azken ekitaldiari dagokiona, aurkeztuko da, eta, hala dagokionean, errenta-mailaren ziurtagiria.

Eskaeraren inskripzioa bidaltzen denean eta artxibo bakar batean, Enplegu Zerbitzu Publikoaren Uko Egiteen Txosten Negatiboa eta dagokion zerga-erakundeak emandako errenta-mailaren ziurtagiria ere aurkeztuko dira.

- c) Familia ugariak, azaroaren 18ko 40/2003 Legeak, Familia Ugariak Babesteak (azaroaren 19ko BOE), 12.1 c) artikuluan ezarritakoaren arabera. Hala, %100eko salbuespena izango dute kategoriatik bereziko familietako kideek tasan, eta %50eko hobaria kategoriatik orokorreko familietako kideek. Familia ugariaren izatea dagokion titulu eguneratuaren bidez egiaztatuko da. Familia ugariaren titulua aurkeztu beharko da.
- d) Terrorismoaren biktimak; halakotzat hartzen dira terrorismo-jardueraren ondorioz kalte fisiko edo psikikoak jasan dituztenak, epai judizial irmo bidez edo izaera hori aitortzen duen administrazio-ebazpenaren bidez hala egiaztatzen badute; horien ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremana izanda bizikide izan direnak; hildakoaren ezkontidea eta zauritu eta hildakoen seme-alabak.



- e) Genero-indarkeriaren biktimak, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoan, zehazten direnak, salbuetsita egongo dira azterketa-eskubideak ordaintzetik. Xedapen honi heltzen dioten genero-indarkeriaren biktimek beren izaera hori egiaztatu beharko dute, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan xedatzen denaren bat etorruta.

3.8. Desgaitasunagatik edo behar bezala egiaztatutako beste arrazoi batzuegatik izangaiek hautaprobak egiteko denbora edota bitartekoak egokitzea behar badute, horixe adierazi beharko dute beren eskabidean. Zer egokitzen mota eskatzen duten zehaztu beharko dute horretarako, eta dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

3.9. Probak zer hizkuntzatan (gaztelaniaz edo euskaraz) egin nahi dituzten adieraziko dute, halaber, izangaiek. Atal horretan ezer adierazten ez badute, probak gaztelaniaz egingo direla ulertuko da, besterik adierazi ezean.

Hautaprobetan parte hartzeko eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira nahitaez:

- Inskripzio-tasa ordaindu izanaren egiaztagiria, edo, hala badagokio, tasa ordaintzetik salbuetsita dagoela adierazten duen egiaztagiria.
- Dagozkion egiaztagiria, baldin eta kanporaketa-ariketa egiteko denbora edota bitartekoak egokitzea eskatu bada.

4. Izangaia onartzea

4.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuaren Fundazioko Zuzendaritza Batzordeko presidenteak ebazpena emango du, eta, ebazpen horren bidez, hautaprobetarako onartu diren izangaien eta baztertutako behin-behineko zerrendak onartutzat joko dira. Ebazpen horretan (UNED Bizkaia webgunean eta iragarki-taulan argitaratuko da), baztertutako izangaien zerrenda jasoko da, baztertzeko arrazoiak adierazita. Era berean, onartutako izangaien behin-behineko zerrenda osoa ere argitaratuko da webgunean eta iragarki-taulan.

4.2. Berariaz baztertuak izan diren izangaiek eta onartutako eta baztertutako izangaien zerrendan ez daudenek hamar (10) egun balioduneko epea izango dute, 4.1 puntuan adierazitako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, onartu eta baztertuen zerrendatik kanporatzeko edo zerrendan ez sartzeko arrazoiak izan den akatsa zuzentzeko. Epe hori amaitzen denean, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratutako da UNED Bizkaia webgunean eta iragarki-taulan.

Onartuen zerrendan sartzeko eskubidea adierazitako epe horretan justifikatu ez zuten izangaia hautaprobetatik kanpo geldituko dira behin betiko.

Nolanahi ere, akatsak saihesteko eta, halakorik gertatuz gero, garaiz eta behar bezala zuzendu ahal izateko, izangaiek ez daudela baztertuen zerrendan jasota ziurtatu beharko dute, argi eta garbi, eta, horrez gain, euren izenak onartutako zerrendan daudela ere ziurtatu beharko dute.

Izangaia interesdunei egotz dakizkien arrazoiengatik baztertuak badira, ez zaie azterketa-eskubiderik itzuliko.

5. Kalifikazio-epaimahaia

5.1. Kalifikazio-epaimahaiaren jardunbideak honako lege hauetan ezarritakoari jarraituko dio: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; bai eta deialdi honetako oinarrietan eta indarreko gainerako xedapenetan ezarritakoari ere.

5.2. Hautapropa hauetarako kalifikazio-epaimahaiak ardura osoz jokatu du, Konstituzioaren 14. artikuluekin bat etorruta, bi sexuen arteko berdintasun-printzipioa bete dadin. Webgunean eta iragarki-taulan emango da, onartutako pertsonen behin betiko zerrendarekin batera, mahaiaren osaeraren berri, xehetasun osoz.



Maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, 30.1 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorrira, honako epaimahai hau bigarren kategoriakoa da.

5.3. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko, eta, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen bada, edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan sarrerako hautaprobetarako izangaiak prestatzeko lanak egin badituzte, horren berri emango diote UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuaren Fundazioko Zuzendaritza Batzordeko presidenteari. Epaimahaiko presidentearen eskariz, kideek berariaz adierazi beharko dute ez daudela urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 23. artikuluan aurreikusitako egoeretan, eta halaxe egingo dute epaimahaiak beren lanean sarrarazten dituen aholkulari espezialistek edo laguntzaileek ere.

Horrez gain, izangaiek epaimahaiko kideak errekusatu ahal izango dituzte, aurreko paragrafoan aurreikusitako inguruabarrak sortzen badira.

5.4. Epaimahaiak bere lanetan aholkulari espezialistak sartzea erabaki ahal izango du, egoki iritzitako faseetan, eta aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan lankidetzan aritzera mugatuko dira. Era berean, eta hautaketa-prozesuaren inguruabarrek hala gomendatzen dutenean, probak egiteko kolaboratzaileak izendatu ahal izango dira, eta kalifikazio-epaimahaiaren zuzendaritzapean jardungo dute horiek.

5.5. Epaimahaiburuak deia egin ondoren osatuko da epaimahaia, eta bertan izango dira epaimahaiburua eta idazkaria edo, hala dagokionean, horien ordezkioak, eta, gutxienez, epaimahaiko kide titularren edo ordezkioen erdiak. Gutxienez oposizio-faseko ariketa egin baino hamar (10) egun lehenago egingo dute eraketa-bilkura. Bilkura horretan, hautaprobak behar bezala egiteko dagozkion erabakiak hartuko ditu epaimahaiak.

5.6. Epaimahaiari dagokio ariketak egitean sortu daitezkeen gorabeherak aztertzea, egiaztatzea eta hautematea, eta, horiei dagokienez, egokitzea jotzen dituen erabakiak hartuko ditu. Era berean, hautaketa-prozesu osoan, epaimahaiak ebatziko ditu arau hauek aplikatzean sortu daitezkeen zalantza guztiak, eta aurreikusi gabeko kasuetan nola jokatu ere hark ebatziko du.

5.7. Epaimahaiak edozein unetan eska diezaieke izangaiei beren nortasuna egiaztatzeko.

Gainera, hautaketa-prozesuan zehar edonoiz deialdi honetan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak ez dituela betetzen izangaietako batek jakiten badu epaimahaiak, UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuaren Fundazioko Zuzendaritza Batzordeko buruari izangai hori kanporatzeko proposatuko dio, aurrez interesdunari entzunda, betiere; horrez gain, izangaiek hautaprobetan onartua izateko eskabidean egindako okerrak edo faltsukeriak helaraziko dizkio, dagozkion ondorioetarako.

5.8. Jakinarazpenetako eta bestelako gorabeheren berri emateko, epaimahaiak bere egoitza UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuan izango du (Inazio Ellakuria Parkea 3, 48920 Portugalete. Helbide elektronikoa: concurso@portugalete.uned.es).

5.9. Epaimahaiak ezin izango du ezarri, inola ere, deialdian zehaztutako plaza kopurua baino izangai gehiagok gainditu dutela hautaketa-prozesua. Aurrez adierazitako horren kontra doan edozein proposamen deuseza izango da zuzenbide osoz.

5.10. Prozedurak aurrera egitea eragozten badu epaimahaiaren jardunbide edo iza-pide-ekintzaren batek, edo defentsa-gabezia eragiten badu, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango dute UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuaren Fundazioko Zuzendaritza Batzordearen presidentearen aurrean, hilabeteko epean.

6. Hautaketa-prozedura

Honako fase hauek izango ditu hautaketa-prozedurak, 1.6 oinarriarekin bat etorrira: oposizio-fasea eta lehiaketa-fasea.

6.1. Oposizio-fasea: 60 puntuko balorazioa du gehienez, ariketa kanporatzaile bat izango du. Laurogei galderako sorta bati erantzun beharko zaio ariketa horretan, eta horietako bakoitzak lau erantzun emango ditu aukeran; bakarra da zuzena. Erantzun zuzen



bakoitzari 0,75 puntu dagozkie. Erantzun okerrak zigortu egingo dira, erantzun zuzen bakoitzari esleitutako balioaren herena kenduz, hain zuzen. Zuri utzitako erantzunek ez dute zigorrik izango.

Epaimahaiak galdera gehigarriak sartu ditzake, erreserba gisa, bost gehienez, eta baliogabetu daitezkeen galderak ordeztzeko erabili ahal izango dira, hurrenkeraren arabera.

Ariketa hau egiteko, laurogeita hamar minutu izango dituzte izangaiek.

Oposizio-fasearen kalifikazioa 60 puntukoa izango da gehienez, eta, gainditzeko, beharrezkoa da gutxienez 30eko puntuazioa lortzea.

Enplegu publikorako sarbidea arautzen duten irizpideak (publikotasuna, gardentasuna, objektibotasuna eta segurtasun juridikoa) errespetatzeko xedez, epaimahaiak, proba egin aurretik, berariaz oinarri hauetan adierazita ez dauden zuzenketa-, balorazio- eta gainditze-irizpideak argitaratu beharko ditu.

Horrez gain, ariketa gainditzeko beharrezkoa den gutxieneko puntuazioa ere ezarriko du epaimahaiak. Azken kalifikazioa lortzeko, zuzeneko puntuazioak eraldatu egingo dira, aurrez epaimahaiak ezarritako baremoen arabera, eta honako irizpide hauei jarraituz:

- Ariketa gainditzeko behar diren gutxieneko zuzeneko puntuazioek bat etorri behar dute gainditzeko eskatzen diren gutxieneko kalifikazioekin.
- Lortu daitezkeen gehieneko zuzeneko puntuazioek bat etorri behar dute ariketaren gehieneko kalifikazioarekin.

6.2. Lehiaketa-fasea: lehiaketa-fasean, oposizio-fasea gainditu duten izangaien merezimenduak baloratuko dira, deialdi honetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko azken egunera artekoak, baremo honen arabera:

- a) Egindako lana: betetako zereginek deialdiko lanpostuan egin beharreko lanekin zer antzekotasun duten kontuan hartuta, lanpostuan edo lanpostuetan zenbat denbora egin duen balioetsiko da. Atal horretako gehieneko puntuazioa 20 puntu izango da. Honako balorazio honen arabera esleitu dira puntuak:
 - 0,3 puntu, UNEDeko ikastetxe elkartuetan deialdiko postuan edo, hala dago-kionean, administrazio-postuan lan egindako hilabete bakoitzeko.
 - 0,1 puntu, UNEDen edo beste administrazio publiko batzuetan deialdiko pos-tuan edo, hala dagokionean, administrazio-postuan lan egindako hilabete ba-koitzeko.

Deialdi honetako I. eranskinean zehaztu dira jarduera-eremua eta funtzioak.

Egindako lana egiaztatzeko, beharrezkoa da bete diren funtzioen ziurtagiria, UNEDen Ikastetxe Elkartuko idazkaritzak edo zerbitzu eta funtzioak eman diren erakundeko pertsonalaren unitateak emandakoa, aurkeztea.

- b) Prestakuntza: lortu nahi den lanpostuaren funtzioekin lotutako prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak baloratu egingo dira, erakunde edo instituzio ofizia-lek emandakoak edo etengabeko prestakuntzako funtsen kudeatzaile aitortuek emandakoak direnean. Atal horretako gehieneko puntuazioa 10 puntu izango da. Prestakuntzaren alorreko merezimenduak baloratzeko, honako arau hau aplika-tuko da:

Kalkulu proportzionala: prestakuntzaren esparruan egiaztatutako merezimen-duak lanpostuarekin lotuta dauden ikastaroetako guztizko ordu-kopuruarekiko proportzio zorrotzean baloratuko dira. Horretarako, 0,0067 puntuko koefiziente biderkatzaile bakarra aplikatuko da prestakuntza-ordu bakoitzeko.

Tarteen mugak: tarte berean sartzen diren zenbait prestakuntza-ekintzaren ba-tura ez da onargarria izango, ezarritako ordu-muga edo puntuazioa gainditzeko, eta gehieneko muga horretara arte zenbatuko da eskusiboki.



Ikastaroaren iraupen-tartea	Tartearen gehieneko muga
20 ordu arteko iraupena	0,3 puntu gehienez.
21 ordutik 30era bitarteko iraupena	0,6 puntu gehienez.
31 ordutik 70era bitarteko iraupena	1,2 puntu gehienez.
71 ordutik 150era bitarteko iraupena, edo lau hilabete baino gehiago	2,4 puntu gehienez.
151 ordutik 300era bitarteko iraupena, edo sei hilabete baino gehiago	4,2 puntu gehienez.
301 ordu edo hortik gorako iraupena, edo ikasturte bat/batzuk	5,0 puntu gehienez.

Prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak egiaztatzeko, dagokion egiaztagiri, titulu edo diplomaren kopia konpultsatua aurkeztuko da.

- c) Euskararen ezagutza: euskararen ezagutza baloratuko da, behar bezala egiaztatuta. Atal horretako gehieneko puntuazioa 10 puntu izango da, irizpide honen arabera.

B1 (3 puntu)	B2 (8 puntu)	C1 edo hortik gora (10 puntu)
--------------	--------------	-------------------------------

Balorazioak ez dira metagarriak izango; hau da, maila bateko balorazioak eragotzi egingo du maila horretatik beherakoak kontuan hartzea.

Euskararen ezagutza egiaztatzeko, dagokion egiaztagiri, titulu edo diplomaren kopia konpultsatua aurkeztuko da.

7. Hautaketa-prozesuaren egutegia eta garapena

7.1. Hautaprobak Portugaleten izango dira, edo, hala badagokio, iragartzen den tokian.

7.2. Oposizio-faseko ariketa 2026ko azarotik aurrera egingo da, eta UNED Bizkaia-ren webgunean (<https://www.uned.es/universidad/centros/bizkaia.html>) eta iragarki-taulan argitaratu dira lekua, data eta ordua, hilabete lehenago gutxienez.

Oposizio-faseko ariketa egiteko, deialdi bakarra egingo zaie izangaiei, eta kanpoan geldituko dira agertzen ez direnak.

7.3. Oposizio-fasea amaitu ondoren, gainditu duten izangaien zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, lortu duten puntuazioaren ordenan.

7.4. Oposizio-fasea gainditu duten izangaiek hogeita (20) egun balioduneko epea izango dute, gehienez ere, aipatutako zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 6.2 puntuan jasotako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko; UNEDen egoitza elektrikoaren bidez egingo dute hori, euren dagokien espediente irekiko «alegazioak» atalean sartua. Horretarako, honako deialdi honetan III. eranskin gisa ageri den eredu normalizatua erabili behar dute.

Agiri horiek dagokion epean aurkezten ez badira, ez dira baloratuko adierazitako merezimenduak.

7.5. Lehiaketa-fasea amaitu ondoren, oposizio-fasea gainditu zuten izangaiek fase honetan lortutako puntuazioen zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, eta baloratzeko aurkeztutako merezimenduetako bakoitzean zer kalifikazio lortu den adieraziko da berariaz.

7.6. Fase bakoitzean, hots, oposizio-fasean eta lehiaketakoan, lortutako puntuazioen batura izango da izangaien azken kalifikazioa.

8. Gainditu duten izangaien zerrenda eta dokumentuak aurkeztea

8.1. Hautaketa-prozesua amaitu ondoren, izangaien zerrenda argitaratuko du epaimahaiak, prozesuan lortutako puntuazioaren arabera ordenatuta; horrez gain, fase bakoitzean guztira lortutako puntuazioak ere agertuko dira. Berdinketarik gertatzen bada,



oposizio-faseko ariketan lortutako puntuazio handienak zehaztuko du ordena. Berdinke-tak bere horretan jarraitzen badu, lehiaketa-faseko puntuaziora joko da erabakitzeke, 6.2 oinarrian jasotzen den baremoko atalen ordena korrelatiboari jarraituz (egindako lana, prestakuntza eta euskararen ezagutza); eta, azkenik, «U» letraren arabera hurrenke-ran, Funtzio Publikoko Idazkaritzak 2025eko uztailaren 24an egindako zozketaren emai-tza kontuan hartuta (Estatuko Aldizkari Ofiziala, abuztuaren 1ekoa).

8.2. Azkenik, hautaketa-prozesua puntuazio handienarekin gainditu duen izangaia-ren aldeko proposamena jakinaraziko dio epaimahaiak UNED Bizkaia Ikastetxe Elkar-tuaren Fundazioko Zuzendaritza Batzordeko presidenteari.

Zerrenda horretan ezin izango dira jaso deialdiko plazen kopurua baino pertsona gehiago, eta erabat deuseza izango da aurrez ezarritako hori urratzen duen gaitutuen proposamen oro.

Hori horrela izan arren, baldin eta epaimahaiak deialdia egin duen organoari egin dion ebazpen-proposamenean gaitutako izangaiei kopurua eta deialdiko plazen ko-purua berdina bada, eta kontratua egin aurretik aukeratutako izangaiek plazari uko egi-ten badiote, plaza horiek beteko direla segurtatu ahal izateko, proposatutako izangaiei ondoren datozen izangaiei zerrenda osagarria eska diezaioke deialdia egin duen or-ganoak epaimahaiari, langile lan-kontratudun finko gisa sartzeko aukera izan dezaten.

8.3. Hautaketa-prozesua gaitutako izangaia hogen (20) egun balioduneko epea izango du, erabakia eta onartutako izangaiei zerrenda UNED Bizkaia webgunean ar-gitaratu eta hurrengo egunetik hasita, deialdi honetako bigarren oinarrian zehazten diren eskakizunak edo baldintzak behar bezala justifikatzeko; eta, horrez gain, abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuan bateraezintasun-ei buruz xedatutakoa beteko du.

Era berean, honako hauek jasotzen dituen zinpeko aitorpena edo agindua aurkeztu beharko da, adierazitako epean eta behar bezala beteta: ez dela bereizi inongo adminis-trazio publikotatik, diziplinako espediente edo kaleratze baten bidez, eta ez duela epai irmo batek funtzio publikoetarako gaitasunik gabe utzi.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiei kasuan, gainera, adierazi beharko dute, deialdi honetako IV. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera, ez dutela di-ziplinazko zehapenik edo kondena penalik, beren estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dienik.

8.4. Ezarritako epearen barruan -ezinbesteko kasuetan izan ezik- dokumentazioa aurkeztu ez badu, edota dokumentazioa aztertu ondoren bigarren oinarrian ageri diren baldintzetako bat ez duela betetzen ondorioztatzen bada, ezin izango da egin kontratua, eta haren jardun guztiak baliogabetuta geratuko dira, hasierako eskabidean edo doku-mentazioan faltasunez aritzeagatik izan dezakeen erantzukizunaren kalterik gabe.

8.5. UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuko Zuzendaritza Batzordeko presidenteak, pro-posamena jasotzen duenetik hasita hiru hilabeteko epean, lanpostua esleitu dio deial-diaren xede den lehiaketa-oposizioa gaitutako izangaiei.

Izangaia ez du inolako diru-saririk jasotzeko eskubiderik izango, laneratzeko proze-sua formalizatu arte.

8.6. Sartu berriak diren langileek probaldi bat izango dute, UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuaren Fundazioko administrazio eta zerbitzuetako langileen lan-harremanak arau-tzen dituen II. Akordioko 13. artikuluekin bat etorruta. Probaldian, ez da zenbatuko aldi baterako ezintasunean emandako denbora, eta hamabost egunekoa izango da aldi hori.

9. Azken Arauak

9.1. Izangaiek, hautaprobea hauetan parte hartzeagatik, deialdi honetako oinarriak eta epaimahaien erabakiak bete beharko dituzte, egoki irizten dieten erreklamazio edo errekursoak egin baditzaizkete ere. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko egoeretan sortzen diren zalantzak ebazteko ahalmena du epaimahaiak, bai eta hautaprobak behar bezala egiteko beharrezkoak diren erabakiak hartzekoa ere.



9.2. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta demanda aurkez daiteke haren aurka Bilboko Lan Arloko Epaitegian, jakinarazpen hau jasotzen den egunetik hasita bi hilabeteko epean (urriaren 10eko 36/2011 Legeak, lan-arloko jurisdikzioa arautzen duenak, 69.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera).

Datu pertsonalak babesteari buruzko informazioa

Tratamenduaren arduradunaren datuak:

Identitatea: Fundación Centro Asociado de la UNED Bizkaia. IFK: G48441745.

Helbidea: Inazio Ellakuria parkea, 3, 48920 Portugalete (Bizkaia, Espainia). Telefonoa: 944 936 535. Posta elektronikoa: info@portugalete.uned.es

Deitutako hautaketa-prozesuan ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, gure erakundean sor daitezkeen lanpostu hutsen berri emateko. Emandako datuak lanpostu bat esleitu arte edo zure datuak ezabatzeko zure eskubidea baliatu arte gordeko dira. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharra edo legitimazio-oinarri egoia dagoen kasuetan izan ezik.

UNED Bizkaian zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko eskubidea duzu, eta, beraz, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko nahiz datuen tratamenduari aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak erabil ditzakezu arduradunaren aurrean, adierazitako helbidean, edo dpd@portugalete.uned.es helbide elektronikoa; horretarako, egiten duzun eskaeran zure burua behar bezala identifikatu behar duzu bitarteko elektronikoen bidez edo, bestela, behar bezala sinatutako eskaeraren bidez. Hala ere, tratamenduaren arduradunak arrazoizko zalantzarik badu eskaera egiten duen pertsona fisikoaren nortasunari buruz, haren nortasuna berresteko beharrezkoa den informazio gehigarria emateko eskatu ahal izango du. Era berean, eta bereziki zure eskubideak baliatzean erabat gustura gelditu ez bazara, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu kontrol-agintaritza nazionalen, eta, horretarako, Datuak Babesteko Espainiako Agentziara jo beharko duzu.

Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, helbide honetara jo dezakezu:

— <https://www.uned.es/universidad/centros/bizkaia/centro/transparencia/cumplimiento-normativo/proteccion-de-datos.html>

**I. ERANSKINA****UNEDEN BIZKAIKO IKASTETXE ELKARTUAREN FUNDAZIOAN LAN-ARLOKO
TENIKARIEN, KUDEAKETAKOEN ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO
LANGILEEN (TEKAZEL) PLAZA BAT TXANDA IREKI BIDEZ BETETZEKO
HAUTAPROBEN DEIALDIKO ARAU ESPEZIFIKOAK****Lehena. — Lanpostuaren deskribapena**

Kategoria: administrari laguntzailea

Jarduera-arloa: kudeaketa ekonomikoa.

Lanpostuaren eginkizun nagusiak: laguntza administratiboa UNED Bizkaiaren kudeaketa ekonomikoaren arloan.

Bigarrena. — Programa

1. 1978ko Espainiako Konstituzioa: ezaugarriak. Konstituzioaren printzipioak eta balio gorenak. Oinarrizko eskubideak eta betebeharrak.
2. Gorte Nagusiak. Diputatuen Kongresuaren eta Senatuaren osaera eta eskumenak. Gobernua. Osaera, izendapena, eginkizunak eta Estatuko gainerako botereekiko harremanak.
3. Administrazio Publikoa: printzipio konstituzionalak. Estatuko Administrazio Orokorra eta haren antolaketa periferikoa. Estatuaren lurralde-antolaketa. Autonomia Erkidegoak. Eskumenen banaketa. Eskumen-gatazkak. Administrazio publikoen arteko koordinazioa.
4. EAEko Autonomia Estatutua. EAEren eskumenak. EAEren botereak. Ogasuna eta Ondarea.
5. Administrazio Zuzenbidea. Kontzeptua eta iturriak. Administrazio-egintza. Administrazio-prozedura.
6. Administrazio Publikoetako langileak. Araubide juridikoa. Administrazio Publikoetako langileen eskubideak eta betebeharrak. Administrazio Publikoetako langileen batezintasunak.
7. Administrazio Publikoko lan-kontratua. Modalitateak. Etetea. Azkentzea. Arrazoiak. Kaleratzea. Lan-kontratuko langileak sindikatzea. Enpresa-batzordeak eta langileen ordezkariak. Greba-eskubidea eta horren erabilera. Administrazio Publikoei buruzko aipamen berezia.
8. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarrizko printzipioak. Lege-araudia. Enpresan prebentzioa antolatzeako modalitateak. Prebentzio-jardueraren kudeaketa.
9. Genero-berdintasunerako politikak. Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa. Genero-indarkeriaren aurkako politikak. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa. Desgaitasuna eta mendekotasuna.
10. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa: datuak babesteko printzipioak. Eskubideak baliatzea. Tratamenduaren arduraduna eta eragilea. UNEDeko informazioaren segurtasuna eta erabilera egokia.
11. 2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena (I): Legearen xedea. Unibertsitate-sistemaren funtzioak eta unibertsitateen autonomia. Unibertsitateak sortzea eta onartzea, eta unibertsitate-sistemaren kalitatea. Lankidetzak, koordinazioa eta unibertsitate-sisteman parte hartzea. Ikasleak unibertsitate-sisteman.
12. 2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena (II): Unibertsitate publikoen berriazko araubidea. Unibertsitate-sistema nazioartekotzea.
13. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren Estatutuak (I): Oinarrizko funtzioak. Egitura eta antolaketa. UNEDeko zentroen sarea. Unibertsitate-komunitatea.



14. UNEDen estatutuak (II): Gobernu, partaidetza eta ordezkaritzako organoak. Unibertsitateko bizikidetza eta unibertsitateko komunitatearentzako zerbitzuak. Ekonomia- eta finantza-araubidea.

15. UNEDeko ikasketak: unibertsitate-ikasketen titulazioak: ofizialak (graduak, masterrak eta doktoretzak) eta propioak. Doktoretzako nazioarteko eskola. Prezio publikoak.

BERARIAZKO ZATIA

1. UNED Bizkaia Ikastetxe Elkartuko Fundazioaren estatutuak. Fundazioaren xedeak. Jarduteko eta funtzionatzeko printzipioak. Fundazioaren gobernu-organismoaren osaera eta eginkizunak. Ekonomia- eta kontabilitate-betebeharrak.

2. UNED Bizkaiaren antolaketa- eta jardura-araudia. Gobernu- eta ordezkaritzako organoak. Ikastetxeko unibertsitate-komunitatea.

3. UNED Bizkaiko Klaustroaren barne-araudia. Xedapen orokorrak. Klaustroaren organoak.

4. UNEDeko irakasle-tutorearen estatutua. Irakasle tutorea. Irakasle tutore izateko sarbidea. Irakasle tutoreen araubidea.

5. Zentro Elkartuen Kudeaketaren Kalitatearen Barne Bermerako Sistema.

6. UNEDeko tutoretzen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko araudia. Tutoretza-taldeak antolatzea. Irakasle tutoreen eginkizunak. Tutoretza-saioak planifikatzea.

7. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. Legearen xedea eta aplikazio-eremua. Sektore publikoko kontratuak.

8. Datuak elektronikoki igortzeko sistema Gizarte Segurantzaren eremuan (RED sistema). ESS/484/2013 Agindua, martxoaren 26koa, Gizarte Segurantzaren arloan datuak elektronikoki bidaltzeko sistema arautzen duena, martxoaren 1eko ESS/2014/2018 Aginduak aldatua.

9. Testu-prozesadoreen eta kalkulu-orrien funtzio eta erabilera nagusiak: Word eta Excel (Microsoft Office 365).

10. Outlook 365. Erabilgarritasun nagusiak. Posta, egutegia, kontaktuak eta zereginak.



II. ERANSKINA/ ANEXO II
ONARPEN ESKABIDEA / SOLICITUD DE ADMISIÓN

1. Deialdia / Convocatoria

Plaza / Plaza	Administrari laguntzailea / Auxiliar Administrativo
Argitalpen-data / Fecha publicación	

2. Norberaren Datuak / Datos personales

Lehen deitura / Primer apellido	
Bigarren deitura / Segundo apellido	
Izena / Nombre	
NAN-ANZ / DNI-NIE	
Jaioteguna / Fecha de nacimiento	
Nazionalitatea / Nacionalidad	
Helbidea / Dirección	
Telefona / Teléfono	
Posta elektronikoa / Correo electrónico	
Eskatzen den egokitzapena / Adaptación que se solicita (justifikazio-agiriak aurkeztea / aportar documentación justificativa)	
Azterketaren hizkuntza / Idioma del ejercicio	

Behean sinatzen duenak eskabide honetan aipatzen diren hautaprobetan onartua izateko eskatzen du, eta bere erantzukizunpean adierazten du eskabidean jasotako datuak egiazkoak direla eta deialdi honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.

La persona abajo firmante solicita ser admitida a las pruebas selectivas a que se refiere la presente instancia y declara bajo su responsabilidad que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas en la presente convocatoria.

(tokia / lugar) (urtea / año) (hilabetea / mes) (eguna / día)

Sinadura / Firma

**III. ERANSKINA / ANEXO III
MEREZIMENDUAK / MÉRITOS****1. Norberaren Datuak / Datos personales**

Lehen deitura / Primer apellido	
Bigarren deitura / Segundo apellido	
Izena / Nombre	

2. Aurkeztutako merezimenduaren zerrenda / Relación de méritos alegados

1)	
2)	
3)	
4)	
5)	
6)	
7)	
8)	
9)	
10)	
11)	
12)	
13)	
14)	
15)	
16)	

(tokia / lugar) (urtea / año) (hilabetea / mes) (eguna / día)

Sinadura / Firma



IV. ERANSKINA

ZINPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak
(helbidea:; nortasun agiria/pasaportea/bisatua:; bizile-
ku-baimenaren zk.:.....) zin egiten du, Espainiako administrazio publikoen zerbitzurako
kontratatua izateko helburuarekin, ez dagoela inongo administrazio publikotako zerbitzutik bereizita
espediente bidez edo diziplinazko kaleratze bidez, ez dagoela gaitasungabetua Espainian funtzio pu-
blikoak betetzeko, eta, hala badagokio, ez duela diziiplina-zehapenik edo zigor penalik bere jatorrizko
estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten dionik.

.....(a)n, 20...(e)koren ...(e)an